ASKAPENAK BABESA EMATEN DIO OSTEGUNEKO, OTSAILAREN 22KO, IKASLE MANIFESTAZIOARI.

Arrasateko Askapenak, Erakunde Internazionalistak, testu honen bitartez, babesa eman nahi dio Ikasle Abertzaleek otsailaren 22an Arizmendiko Greba Araudia aldatzeko egingo duten manifestazioari.

Greba eskubidea langileek borroka luzeen ondorioz lortu duten eskubidea da, partehartze politiko eta protesta eskubiderako giltzarri dena. Horregatik, bat egiten dugu edozein antolakundek eskubide hori garatzeko eta gauzatzeko egin dezakeen mobilizazioekin. Beraz, Arrasaten, datorren ostegunean egingo den mobilizazioak gure babesa izango du, eta gainerako eragileei dei egiten diegu babes bera emateko. Langile-ikasle batasuna da bidea!

Arrasaten, 2018ko otsailaren 19an.